



I. ERANSKINA LEHEN HEZKUNTZA

2020-21 ikasturteko curriculum-antolamendua

Lehen Hezkuntzako curriculum-antolamendua Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 14. artikuluan jasotakoa da.

Ebaluazioaren izaera

Lehen Hezkuntzan, ikasleen konpetentzien ebaluazioa banakakoa, **etengabekoa eta orokorra** izango da, eta kontuan hartuko du ikasleak curriculumaren arlo guztietan oinarrizko konpetentziei dagokienez izandako aurrerapena.

Ebaluazio-prozedurak eta tresnak

Etengabeko ebaluazioaren esparruan, ikasturtean zehar ikasleen prestakuntza-aurrerapenen progresioari buruz jasotako informazioa funtsezko elementua izango da azken ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan.

Ikasturte amaierako ebaluazioa

Ikasturte hasieran egin zen **hasierako ebaluazioari** esker ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera eta taldearen egoera orokorra ezagutu ahal izan ziren, programazio didaktikoetan egin beharreko doikuntzak egiteko.

Ikasturtean zehar, irakasle taldeek informazioa bildu dute ikasle bakoitzak arlo bakoitzean ezarritako helburuak lortzeko eta konpetentziak garatzeko egin duen aurrerapenari buruz. Aurrerapen horren jarraipena irakasleen arteko koordinazioaren eta ikasturtean zehar egindako **ebaluazio-saioen** bidez egin da, eta dagozkion ebaluazio-aktetan islatuta geratu da.

Lehen Hezkuntzako **ikasturte bakoitzaren amaieran**, ikasleek lortutako emaitzen azken ebaluazioa egingo du talde bakoitzeko irakasle taldeak. Emaitzen balorazioa ebaluazio-dokumentuetan jasoko da, arlo bakoitzeko kalifikazioak adierazita.

Ebaluazioen emaitza honela adieraziko da:

Gutxiegia (G) kalifikazio negatiboetarako, eta Nahikoa (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO) edo Bikain (BI) kalifikazio positiboetarako.

Horiekin batera, zenbakizko kalifikazioa adieraziko da, hamartarrik erabili gabe, batetik hamarrerako eskalan, honako korrespondentzia hauekin:



Gutxiegia: 1, 2, 3 edo 4

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8

Bikain: 9 edo 10

Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. mailetan, ikasleren bat Euskara eta Literaturaz salbuetsita dagoenean, Salbuetsia (SB) adieraziko da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran **saio** bat egingo da **aurreko ikasturteetan gaingitu gabeko irakasgaiak** dituzten ikasleak **ebaluatzeko**. Bertan, maila posible bakoitzaren (1., 2., 3., 4. eta 5. mailak) “akta osagarriak” izenekoetan maila horretan irakasgairen bat gaingitu gabe duten ikasleak jaso eta kalifikatuko dira.

Ez dira jasoko Norbanako Curriculum Egokitzapen baten bidez egindako irakasgaiak.

Mailaz promozionatzea

Lehen Hezkuntzako maila bakoitza amaitzean, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, taldeko **irakasle taldeak** ikasleak **mailaz igotzeari** buruzko **erabakiak** hartuko ditu. Erabaki horiek hartzeko, **oinarrizko konpetentzien garapenari** buruz eskura dagoen informazioa hartuko da erreferentziatzat, eta, **bereziki, tutorearen irizpidea hartuko da kontuan**.

Ikaslea **hurrengo mailara edo etapara igaroko da**, baldin eta **oinarrizko konpetentzien garapena erdietsi duela** irizten bazaio. Igaroko da, **halaber, erdietsitako** ikaskuntzek maila edo etapa berria **probetxuz jarraitzeko** aukera ematen badute. Zenbait kasutan, alabaina, behar duten ikasleek **indargarriak eta laguntza-neurriak** jasoko dituzte.

Aurreko atalean **adierazitako baldintzak** betetzen **ez** direnean, ikasleak **urtebetez jarraituko du** maila berean. Neurri hori **behin bakarrik** hartu ahal izango da **Lehen Hezkuntzan**, eta, **horrekin batera, indargarri- edo errekupeazio-plan espezifiko** bat prestatu beharko da, mailaz igotzea eragotzi duten zailtasunak gaingitzeko.

Mailaz ez igotzeko erabakia **salbuespenezko neurria** izango da, eta ikaslearen ikasteko zailtasunak gaingitzeko gainerako ohiko indargarriak eta laguntza-neurriak agortu ondoren hartuko da.

Irakasle taldeak **adostasunik lortzen ez badu**, urtebetez maila berean jarraitzeko erabakia, **gutxienez**, ikaslearen irakatsi eta ikasteko prozesuan esku hartzen duen **taldeko kideen bi herenek** hartuko dute. Nolanahi ere, mailaz ez igotzeko erabakia hartu **aurretik**, tutoreak ikaslearen gurasoei edo **legezko ordezkari**ei **entzungo die**, eta **zailtasunen izaera jakinaraziko die**, baita horiek gaingitzeko **hartu nahi dituen neurri osagarrien** berri eman ere.



Ebaluazioaren emaitzak Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez helaraziko dira Ikasketen Espedientera eta Ikasketen Historiara (ziurtagiri digitala).

Aurreko ikasturteetan gainditu gabeko arloak gainditzeko dituztenean, akta osagarrietan islatuko dira.

Lehen Hezkuntzako ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzea

Ikaslea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko da, baldin eta Lehen Hezkuntzako **etapako** oinarriko konpetentziak garatu eta **helburu orokorrak lortu** baditu. Igaroko da, halaber, baldin eta erdietsi ez dituen ikasketek etapa berria probetxuz jarraitzea eragozten ez badute.

Kasu horretan, Lehen Hezkuntzaren amaierako banakako txostenean adieraziko da laguntza-neurririk edo indargarririk behar den ala ez eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hastean hezkuntza indartzeko programa espezifikoren batean sartzeko komeni den.

Ikasleek Lehen Hezkuntzako etapan eskolatuta egon ziren ikastetxeen bestelakoetan egiten badute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, ikastetxe hartzaileek jatorrizko ikastetxeekin koordinatzeko mekanismoak ezarriko dituzte, lortutako ikasketen maila eta hezkuntza-premia garrantzitsuenak hobeto ezagutzeko. Berezi, ikasturteko azken hiruhilekoan, zuzendaritza-taldeak, orientatzailea dinamizatzaile duela, bilerak sustatuko ditu ikasleen jatorrizko ikastetxeekin. Matrikula-prozesua amaitzean, ikasle bakoitzaren azken ebaluazio-txostena eskatuko die jatorrizko ikastetxeei.

Lehen Hezkuntza. Ebaluazio-dokumentu ofizialak

Lehen Hezkuntzako ebaluazio-dokumentazio akademikoari eta hori betetzeari eta baliozkotzeari buruzko oinarriko alderdiei dagokien guztia Hezkuntzako sailburuordearen JARRAIBIDEEN (2020-21 ikasturterako EAEko oinarriko hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa arautzen dituen, COVID-19ak eragindako krisi-egoeraren aurrean) IV. eranskinean jasota dago.

Ikasleentzako eta gurasoentzako edo haien legezko tutoretza dutenentzako informazioa

Ikastetxeak, ikasturte bakoitzaren hasieran, ezarri duen prozeduraren arabera, ikasleei eta haien gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi behar izan dizkie arlo bakoitzaren helburuak, maila edo etapa ebaluatzeko eta mailaz igotzeko irizpideak, eta aplikatuko diren ebaluazio- eta kalifikazio-prozedurak.

Halaber, tutoreek ikasleen hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa eman behar izan dute, gutxienez hiru hilean behin.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasle taldearen aholkularitzarekin, ikaslearen ikasketen prozesuaren emaitza jasoko duen **azken ebaluazioaren ondorengo**



txostena egingo du. Txosten horretan jasoko dira arlo bakoitzean lortutako kalifikazioak, eskola-errendimenduari, gizarte- eta hezkuntza-integrazioari eta, hala badagokio, aurreikusitako indargarri eta laguntza-neurri orokorrei buruzko informazioa, oinarrizko konpetentzien eskuratzeko-maila eta hurrengo mailara edo etapara igotzeko erabakia.

Banakako txosten horren **kopia** bat ikaslearen gurasoei edo **legezko tutoreei** entregatuko zaie.

Jarraibide horien 1. eranskinean eskaintzen dira **banakako txostenen orientazio-ereduak** eskuratzeko estekak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan (201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa) aurreikusitakoaren arabera, ikasleek eta haien gurasoek edo legezko ordezkariak —ikaslea adingabea denean— beren seme-alabei edo tutoretzapekoei egiten zaizkien **ebaluazioen inguruko ebidentzia** guztiak eta **ebaluazio-dokumentu ofizialak eskuratu** ahal izango dituzte, betiere ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-arauek zehazten duten moduan. Era berean, **irakasleei argibideak eskatu** ahal izango dizkiete etengabeko ebaluazioaren emaitzei buruz, arloko ikasturte amaierako ebaluazioari buruz eta mailaz igotzeko erabakiei buruz.